




## «Herriko txoko ezezagunak gerturatzeko», hiru mendi ibilbide

**ZIZURKIL** ▶ Udalak aurkeztu zituen atzo argitalpen batean bildu dituzten bi ordu inguruko txangoak ▶ 4



Atxulondo burdinolaraino iristen da ibilbideetako bat. HITZA



## Mendizaletasunak lotuta

**TOLOSA** ▶ Esteban Larraiotz eta bere emazte Petrak 60 urte egin dituzte elkarrekin mendietako gailurrak igotzen ▶ 3

## 2007KO KOBRAKETA KANPAINA ABIAN

Egunean 19 zentimoren truke egin zaitez harpidedun!



eta gainera...

**CJ CJ BT**  
JULIAN & TOLOSA

urteko kuota ordaintzeko kontu korronteko zenbakia ematen duzenon artean Tolosako Casa Julian jatetxean afaria zozketatuko dugu.



...eta banaketa txokuna izan dadin giltza ematen duzenon artean Ortzadar lantzeria-dendan 120€-ko erosketa txartela.

**Entrega epea:**  
Ekainak 10  
**Zozketa eguna:**  
Ekainak 18

BEZEROARENTZAKO ARRETA ZENBAKIA: 902 820 201

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## Pailazokeria ala pailazotasuna?

Mokolo eta Poxpoloren Tolosako maiatzaren 30eko ekitaldiaz:

Harritu nindun pixka bat asleheneko Hrtzan Mokolo eta Poxpoloren ekitaldiari buruzko idazkiak. Agian ondo zegoen erabat salduta zegoelako, edo umeek ondo pasa zutelako, edo gure herrian ekitaldi gutxi daukagulako edo Tolosako bandarekin batera aritzea berria eta interesgarria zelako edo bertako artistak bultzatu behar direlako. Baina kritika faltakoa iruditu zitzaizidan erabat.

Badira niri pertsonalki gustatu ez zitzaizkidan zenbait gauza, eta honetaz hezitzailetzat eta gurasotzat hitz egin nahi nuke. Ulertzen dut, zinema oso bat betetzen duen artista bateko oso ardurua handia daukala eta are gehiago umeekin

aritzen denean. Portaera eta kontzeptu asko gure gizartearen oso sartutak dira eta zaila da haiek gainditzea. Beste batzuk artisten ardura dira. Bigarren atal honetan euskara jarriko nuke eta gure gizartearen aspalditik alde desberdinetatik egiten ari garen ahalegina kontuan hartu behar da. Nire ustez euskarazko saio batean gaztelania erabiltzea ezinezkoa da eta batez ere gidoiko txantxak edo gako nagusia horretan egitea. Honek gizartearen ahaleginaren kontra egiten du eta ez dator belaualdi berri baten beharrekini bat.

Lehenengo atalean berriz gure gizartearen normal (arauekin, normekin bat egiten duenak) bezala onartzen diren jarduerak baina gaituzte behar direnak kokatuko nituzke. Haien artean gu baino azal ilunagoak direnak pintura beltzaz errepresentatzea eta animal basatien soinuak egiten daukagu esate baterako. Gaur

egungo Tolosa, Euskal Herria bezala, anitza da eta biztanle desberdinak dauka, azal desberdinakoa eta haien artean honekin islada ditzaketen jendea eta agian ekitaldia ikustera joan ziren afrikar jatorrizko umeak. Horrelako kontzeptuak onartezinak dira. Diodanez, badakit hauek inauterietan eta beste uneetan errepikatzen direla, baina garaia da hauek kontuan hartzea. AEBetan edo EBan (aniztasunaren aldeko ohitura luzedunekoak) *Blackface* ohitura eta ildo honetan *The Black and White Show* bezelako ekitaldiak edo hainbat marrazki bizidunak arrazista bezala kontsideratzen dira. Zerbait arlotan beste gizartearen esperientziak ikasten hasi behar dugu eta praktikan jarri.

Beste alde batetik, homosexualitate onartzen duen gizarte bat eraikitzen ari gara, non gobernuak ere aurrerapauso handiak eman dituen. Ilun-

kotasunetik zeuden (dauden) hainbeste baldintza eta muga gaituzten ari gara pixkanaka. Argi dago gure hiztegiaren eta jarretaren badaudela homofobia iraun arazten duen gauza asko. Baina mutil bat beste mutil batek ikututa ezin izatea (kasu honetan -edo neska batek) horrelako jarduerak da nire iritziz eta homosexualitatea gaituztearen kontra egiten duena.

Hezitzaile bezala ere egungo biolentzian hezitzeak ardura daukagu. Gure gizartearen gatazka batean bizi gara, pistolak trenean aurkitzen ditugu, supermerkatuan, eta aldi berean biolentzia eta armen eragina edonon zabaltzen da gerrate eta sarraskiekin. Umeengan ere bereziki telebistan eta bideojokuen bitartez, edo pistolak jostailu bat bezala onartzen dira. Nire ustez nahiz eta ekitaldian (haien bideoan ari naiz) armak ez erabili, tiroketak salbuetsi behar ziren (soinu efek-

tuak oso ondo daude baina erreagoak suertatzen dituzte) eta baita hilketa ere bai nahiz eta umeak horretan jolastu edo oso onartua izan. Esaten badizuet nire umeak hori ikasi zuela pasa den igandeko ekitaldean suposatzen dut artista bezala ez litzazuekela asko gustatuko.

Konparaketak gorrotagarriak dira (eta hau dela eta esan behar dut asko gustatzen zaidala Poxpolo eta Mokolo ekitaldi xumea eta apala, beste batzuk gehiegizkoak iruditzen baitzaizkit — eta umeentzako ere), baina besteekin konparatuz, aurkitzen dudana desberdintasun handiena haiek ulertzen dutela umeengan izan dezaketen eragina eta erabiltzen dutela beste zerbait eskaintzeko. Zerbait baikorra. P&Mren abesti batez baliotuz, nire ustez hortan dazka pailazotasun eta pailaz okerriaren arteko desberdintasuna.

MARTIN MANTXO ▶ TOLOSA

## ZESTA-PUNTA ▶

## Herriarteko finala, bihar

Donostian jokatu du Tolosako zesta-punta taldeak Zumaiaren aurka

## ERREDAKZIOA

Pasa den astean donostiarren aurka Balda pilotalekuan lortutako garaipenarekin, aurten ere Herriarteko Txapelketako finalera iritsi da Tolosako zesta-punta taldea (kadeteak, jubenilak eta seniorrak).

Finala Donostian jokatu dute bihar, 10:00etan hasita, Zumaiako zesta-puntisten kontra. Joan den urtean ere zumaiarren kontra jokatu zuten tolosarrek eta txapeladunorde geratu ziren.

Beraz, arduradunek dioten bezala, «aurtengo Herriarteko finalak badu errebantxa kutsu bat». Tolosako ordezkariek Herriarteko Txapelketan, kadeteen mailan, Izagirre, Bildarratz eta Esnaola dira; jubenilen mailan, Mujika, Gabarain eta Telleria ariko dira, eta seniorretan, Trabazos, Orrantia, Mujika eta Sadaba.

Bestalde, Gipuzkoako txapeladun geratu ondoren, Tolosako infantil zesta-puntistak Getxon lehiatuko dira, Euskadiko Kirol Jokoaetako azken jardualdian.

## AISIA ▶

## Arcachonera irteera, hilaren 27an

Urtero Topagunetik antolatzen duten Arcachonera ur parkera irteera hilaren 27an izango da. Animatzen direnek 18 euro ordaindu beharko dituzte, topagunean bertan.

## AISIA ▶

## Imersoren bidaietan izen-ematea

Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik jakinarazi dute dagoneko bertan direla Imersoren 2007-2008 denboraldirako antolatutako bidaiak egiteko eskaerak. Interesatuak hilaren 30a izango dute izena emateko azken eguna.

## ERLIJIOA ▶

## Sakramentinoen ikasle ohien eguna

Sakramentinoak Tolosara iritsi zirenetik 100 urte betzen dira aurten, eta hori dela eta, egitarau berezia antolatu dute gaurtik hilaren 17ra arte. Gaurkoan, esaterako, Sakramentinoetan ikasle izan direnen eguna ospatuko dute. Hala, 09:00etatik 11:00etara harrera egingo diete, eta 11:00etan meza izango da. 14:00etan, berriz, bazkaria egingo dute Ikastolako frontoian. Bertan, besteak beste, Jose Fermin eta Jose Martin Argiñarena bertsolariak ariko dira. Bestalde, gaurtik hilaren 17ra arte, argazki eta eliz-ontziteriaren erakusketa izango da ikusgai Sakramentinoetan.

## ERLIJIOA ▶

## Santa Mariako kaperak abestuko du bihar

Bihar Korpus eguna izango da, eta urtero bezala, Tolosako Santa Mariako kaperak (organoa, abesbatza eta orkestra) 11:00etako mezan abestu egingo du. Mokoaren *De Coronatione* meza, Korpusoko zortzikoa eta prozesioan betiko Motetek.

## MUSIKA ▶

## Udal Musika Eskolako kontzertua, etzi

Udal Musika Eskolako ikasleek (kamarako banda eta ikasleen banda) kontzertua izango da etzi. Musika Eskolako aretoan eskainiko dute saioa 20:15ean.

Prezio magikoak Citroën-en

Citroën XSARA PICASSO 13.700€\*  
Citroën C4 PICASSO / 5 esefekukoak 17.600€\*  
Citroën C2 8.400€\*  
Citroën C3 8.900€\*  
Citroën GRAND C4 PICASSO / 7 esefekukoak 12.500€\*  
C4 PICASSO / 5 esefekukoak

**VISIOSPACE-ak**

Citroën, Espainiako<sup>1</sup> merkatuko liderra, Visiospace berriak jaurtitzen ditu eta prezio hauekin ospatzen du:

Citroën XSARA PICASSO 13.700€\*  
Citroën C4 PICASSO / 5 esefekukoak 17.600€\*  
Citroën C2 8.400€\*  
Citroën C3 8.900€\*  
Citroën C4 12.500€\*

**IROVI, S.A.**  
Citroën Konzesionario Ofiziala  
Industrialdea z/g. • Tel.: 943 65 18 42  
Anoeta / Tolosa  
CITROËN

TRIATLOIAK ▶

## Tolosaldekoak Zarauzko proban gaur lehiatuko dira

ERREDAKZIOA

Gaur, Zarauzko b distantziako triatloia jokatu dute. Ironman erdia. Lehenik, igerian 2.500 metro egin behar dituzte Getaria eta Zarautz artean. Ondoren, bizikletan 82 kilometro erlojuaren aurka korrituko dituzte bakarka. Tartean, Meagas bi aldiz eta Aiako malda gogorra, %18ko penditza duena igo behar dituzte. Amaizteko, 20 kilometro korrika egingo dituzte, Zarautzko kaleetan barrena.

Euskal Herriko proba aitindaria da distantzia honeta. Tolosaldeko honako hauek lehiatuko dira: Aimar Agirresarobe eta Egoitz Zalakain, Unai Aizpuru, Iñaki Insausti, Edu Gonzalez, Xabier Beldarrain, Jose Luis Izagirre, Aitor Tejeria, eta Sonia Muñoz.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

MENDIA ▶



Gona eta abarkak jantzita igotzen ziren mendira, Pirineoetara egindako bidaietako bat. HITZA

# 60 urte elkarrekin mendietako gailurrak igotzen

Diamantezko ezteiak ospatu zituzten joan den hilean Uzturren, Esteban eta Petra mendizaleek

ESTI EZEIZA

**H**iru urte elkarrekin, erraz esaten da, baina zaila da egiteko. Errazago da hala ere 60 urte egitea ezkontuta afizio eta ilusio berdinak badituzte biek. Esteban Larrayotz eta bere emazte Petrak 85 urte dituzte, eta aurtan, maiatzaren 16an bete dituzte diamantezko ezteiak. Beraien bizitzaren ardatzetako bat mendia izan da, ezagutu ere hemen egin baitziren. Oriorako txango batean ezagutu ziren elkar, eta egun sei hamarkadaren ondoren batera jarraitzen dute. Gainera, modu berezian ospatu zuten urteurrena, Uzturrera igo baitziren. Hala ere, oraingoan, bidaiaren zati handiena autoz egin zuten, eta duela urte batzuk bezala.

Bere bizitzan gustuko egin duen gauza bezala deskribatzen du Larrayotzek mendia.

Urteetako ibilbidea

Esteban Larrayotz Tolosa CFn hasi zen, hemen hasi zen mendiar mundua ezagutzen. Soldaduskatik itzuli zenean berarekin batera lan egiten zuten bi lagunekin batera Tolosa CFko mendizaleen taldean eman zuen izena, garai horretan 15 besterik ez zirelarik taldean. Orduan mendi martxetan eta



Diamantezko ezteiak ospatzeko Uzturrera igo ziren. HITZA

lehiaketetan parte hartzen hasi zen. Horietako bat zen bost urtetan 100 mendi ezberdin igotzearena, eta 1950-1955 bitartean, hau gauzatzea lortu zuen. Petra berriz, Aragoiko Pirineoetan dagoen Balaitus mendia igo zuen lehen emakumea izan zen.

50eko hamarkadan gero eta gazte gehiago hasi zen mendi elkartean izena ematen, azkenik 200 pertsona inguru bildu zirelarik. Hauek mendi irteerak eta txapelketak antolatzen zituzten. Baina 1958an, uholde

izugarri bat izan zen eta honek kalte handiak eragin zituen Tolosan. Ondorioz, futbol zelaia berritu beharra zegoen, eta garai hartan aginduan zegoen falgangeak baldintza batzuk exijitzen zituen. Hala, Esteban eta bere kideek ez onartzea erabaki zuten. Horregatik Tolosa CFtik bidaltzea erabaki zuten. Honen ondoren, Tolosako tren geltokiaren ondoko kaperan hasi ziren biltzen, baina hementik ere bota egin zituzten. Egoera nolakoa zen ikusita, beste elkarte bat sortzea erabaki zuten, eta honetarako dirua biltzen hasi ziren, hortik sortu zen Alpino Uzturre taldea. Dena den, hau ireki bitartean, Esteban eta Petrarren etxean egiten zituzten bilerak, eta hemen elkartzen ziren mendizaleak.

Mendiak utzitakoak

Horrenbeste urte mendian egin ondoren, ehunka istorio bitxi eta pasarte dituzte bi tolosarrek. Bestalde, garai gogorrek bizitza suertatu zitzaizkien, horien artean, Espainiako Gerra Zibila, eta ondorengo Frankismo garaia. Azken urte hauetan, zailtasunak zituzten Irungo muga gainditzeko eta Pirineoetara joateko. Estebanek, zailtasun handienetakoa bezala gogoratzen du. Petra, garai hartako emakume mendizale bakarretakoa izan zen. Gainera, bere esanetan «nirretzat zailagoa zen, emakumea izateaz gain, ezkondua eta bi seme-alaba zituena baintzen. Gainera gona antzeko bat jantzita igotzen ginen gu, eta ez egun bezala, jantzi bereziki», azaldu zuen.

Maitasun bereziena dion mendiaz galdetzean, Larrayotzek ez daki zer erantzun, «hainbeste igo baitituz, denak dira bereziak». Baina, igo gabe utzi zuen, eta nahi zuen mendiaz galdetzean, Alpeetara egindako bidaiak hitz egiten du. Bere lagun batekin autoz abiatu ziren hara, baina eurria hasi zuen eta ez zuen gelditzen. Bidaia bertan behera utzi eta Kostalde Urdinera joan ziren.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ANOETA ▶ JAIK



## Herritarren emanaldiak eta gero, gaur Gazteen Eguna

**Erredakzioa** ▶ Pixkanaka egunak pasatzen ari dira Anoetako jaietan. Atzo, besteak beste, taula gaineko emanaldien txanda izan zen. Ekitaldien artean bertso eskolako kideek emandakoa ikusi eta entzun ahal izan zen —argazkian—. Gaur Gazteen Eguna izango da eta eguna ekitaldiz beteta izango dute. **TERE SOTO**

ZIZURKIL ▶ KIROLAK

## Gipuzkoako Segatxapelketa jokoan, bihar

**ERREDAKZIOA**

Zizurkil jokatuko da bihar Gipuzkoako Emakumezkoen Segatxapelketa lehenengo aldiz. Bost segalari ariko dira, horietatik lau eskualdekoak: Iurre Olano, Amaia Igartua eta Mara Luisa Gabirondo gazteluarrak, Arantxa Urbietak orenarra eta Arrate Garin lego-retarra.

Zaldu Azpi baserriko zelaian jokatuko dute txapelketa, 18:00etan hasita. Ondorengo lana egin beharko dute: 35 metro karratuko (7 m. x 5 m.) bi belar sail nork azkarrago eta txukunago ebaki. Antolatu-

keta lanetan Gipuzkoako Euskal Kirol eta Joko Federazioa aritu da, Zizurkilgo Ziotza Herri Kirol elkartearen laguntzarekin.

Bestalde, gizonezkoek dago-kionez, Gipuzkoako Txapelketa kanporaketa jokatuko dute bost segalarietako guztiak eskualdekoak: Mikel Alkorta asteasuarra, Joxe Garibondo eta Andoni Goikoetxea gazteluarrak, Jesus Mari Ormaetxea Urki orendaindarrak eta Arkaitz Artega baliarraindarrak. Hauek egin behar duten lana 100 metro karratuko (10 m. x 10 m.) nork azkarrago eta txukunago ebaki izango da.

ZIZURKIL ▶ INGURUMENA

# Hiru mendi ibilbide aurkeztu ditu Udalak

Baserri ezagunak, mendi larreak eta Atxulondo burdinola ikusteko aukera bi ordu inguruko ibilbide bakoitzean



SL-Gi 25 (goian ezkerrean), SL-Gi 26 (goian eskubian) eta SL-Gi 27 ibilbideak argitaratu ditu Udalak. **HITZA**

**IMANOL GARCIA**

Zizurkilgo Udalak hiru mendi ibilbideren aurkezpena egin du. Zizurkilgo baserriak, mendiko larreak eta Atxulondo burdinola dira ibilbide bakoitzean ikusi ahalko direnak. Ibilbideak argitalpen batean bildu dituzte. Informazio horretaz gain, herriari buruzkoa, bai historiaren aldetik, bai turismoaren aldetik, ageri da.

Marian Lazkano alkateak azaldu zuenez, ibilbide hauek «Zizurkil gehiago ezagutzeko aukera ematen dute». Bi ordu inguruko ibilbideak dira eta edozeinek egiteko modukoak. Herriko baserri ezagunetatik (Abeletxe, Andrezketa, Odolkierraga...) pasatzen da SL-Gi 25 ibilbidea. Mendiko larreak ezagutzeko, Ezkeltzu ondotik iragortzen da SL-Gi 26 ibilbidea

eta Azarolan hasi eta Atxulondo burdinolan amaitzen da SL-Gi ibilbidea. Hiruak homologatuta eta seinalatuta daude. Argitalpenak herriko etxe guztietara bulegoetan dira eta turismo bulegoetan ere izango da.

Argitalpen hau herriari buruz Udala ateratzen ari den materialaren beste urrats bat da. Aurretik, besteak beste, herriko mapa toponimikoa eta Zizurkilgo ondarea eta baserriak CDa atera zituen. Herriko txoko «ezezagunak» gerturatzeko asmoarekin egindako argitalpenak dira.

**Ibilaldiak igandean**

Aste Berdearen baitan egin dute mendi ibilaldien aurkezpena. Asteari amaiera emateko, herriko karobiak, elurtzulo-



Lazkano, aurkezpenean. i.e.

ak eta sela-harriak ezagutzeko ibilaldia antolatu dituzte. Ibilaldi luzea eta motza egiteko aukera izango da. Ibilaldi luzeak 08:00etan abiatuko dira oinez Zizurkil Goiko plazatik. Ibilaldi motzekoak, berriz, 10:00etan elkartuko dira plaza berdinean eta atoi baten gainean Ipidegiuko bigurutzera joango dira eta han elkartuko dira ibilbide luzeekin. Ondare horren guztiaren berri joxin Azkuek emango du.

**GOIERRITARRA aldizkariak KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN**

**ERREFERENTZIA:07-K0G**

**Eskaintzen da:**

- Etorikizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Finko gehi komisioz osatutako soldata interesgarri bat

**Eskatzen da:**

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea

**Kontuan hartuko da:**

- Publizitate eta komertzial lanetan eskermentua izatea.
- Goerri bertan edo inguruan bizitzea.
- Goerri inguruak ongi ezagutzea.

**Curriculum Vitae** zehatza bidali ekainaren 15 baina lehen. gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA Ez ahaztu erreferentzia zehatza

**Argazkilaritza:**  
publizitatea,  
industrialia, erreportaia

**FOCUS ESTUDIO**

www.focusstudio.com

Industrialdea 11 • Anoeta • 943 65 04 97

**ANOETAKO HERRI IKASTOLA**

**Festak ondo pasa!**

Euskaadi

Ergoien,5 • Tel.: 943 65 29 32  
anoeta@ikastola.net

**MIANJO**

Herriko plaza, 2 - ANOETA  
Tel.: 943 651 194

GUTUN@K ▶

Emaizta historikoa

Hausnarketa egin ondoren, M-27an Irurak lortu duen emaitza historikoaren nondik norakoak azaldu nahi ditugu.

Hauteskunde hauetarako iragartzen zen iruzurra gorputza hartzen ari zela oharirik, herriaren egoera arriskuan ikusi genuen. EAeren zerrenda legez kanpo utzita eta kanpoko zerrendak aukera bakarra zirela jakitean, arazoari aurre egiteko herriari deia luzatu genion.

Kolore guztietako herritarrok egoerari aurre egiteko nola jokatu eztabaidatu genuen. Bilera horietatik sortu zen Herri Ekimena: mugimendu honek hiru ideien inguruan batu nahi izan zituen indarrak: herriko zerrendaren baliogabetzea salatu eta hauteskunde libreen aldeko jarrera azaldu; kanpoko zerrendarik ez; herriko alkatea herrikoa izaten jarraitzea.

Helburu hauek lortzeko bidean bozka zuria zen egiazko aukera bakarra, kanpoko indarrek baliozko botoen %5 baino gutxiago jasoz gero hiru helburuak lortzen baitzenituen. Herri Ekimenak berea egin zuen erronka hau. Irurako EAEk herriaren erantzuna ikusirik, bere zerrenda baliogabearentzat bozka eskatu behar zuten Herri Ekimenarekin bat egin eta bozka zuria eskatu zuten.

Emaiztak hauek izan ziren: Udaletxekoetan, zuriak, 586 (%94), PPK 15, eta PSE-EEK 19. Herriak ozen eta garbi hitz egin du. Emaizta historiko hauek lortzeko bozka zuria aukeratu duten herritar guztiak zoriondu nahiko genituzke. Herri Ekimena norbanako sinaduraren bitartez, batzarretara azalduz, edo kartelak egiten eta buzoneoan lagundu dutenei esker ona adierazi nahi diegu.

Azkenik, mugimendu honen oinarritzko zutabe bilakatu diren talde eragileen babesa goraiatu nahiko genuke. Eskerrik asko: Irurako Gazte Alaiak elkarteak, Gazte Asanblada, jubilatuek, Irurako Loatzo musika eskola, odol emaille taldea, Udala eta bertako ELAko langileak, ezker abertzale taldea eta Ametsa pilota eskola.

Antzeko egoeran dauden udaletan herriaren borondatea errespetatzea eskatzen dugu; eta kukuei, zorionak, egindako lanak eman dizue merezitako saria.

JON GURRUTXAGA ▶ IRURAKO  
EAE-ANV-REN IZENEAN

ALEGIA ▶ GIZARTEA



Ikasleek, besteen artean, Marokoko astea izan dute aurten. n. u.

# Ikasturteari agur esateko jaia, gaur

San Joanekoak izango dira emanaldia eskaintzen; jakiak ere prestatu dituzte

NEREA URBIZU

Eskolako neska-mutilak azken klaseak jasotzen ari dira: beste ikasturte bat bukatzeaz dago. Merezitako amaiera antolatu dute hainbat herritan, eta gaur, esaterako, Alegiko San Juan eskolakoek egitarau berezi bat prestatu dute. Honetan, noski, ikasleak izango dira protagonistak, baina herritarren presentzia ezinbestekoa izango da, hauentzako lekua ere egongo baita.

Jaialdia 16:00etan hasiko da pilotalekuan. Bertan, 2 eta 12 urte bitarteko haur guztien emanaldiak izango dira: antzerkia, dantzak, abestiak eta abar. Guztira, ordu eta erdi inguru iraungo du. Merienda izango da ondoren, han bertan. Tartean, II. Bertso Paper Lehiaketako 8 eta 11 urte bitarteko partaideei sariak banatuiko dizkiete. Bertso hauek entzuteko aukera ere izango da ziurrenik, protagonisten aholkatik gainera.

Joko malabareen tailerra izango da eskolako jolastokian, 19:00etatik aurrera. Bukatzeko, 21:00etan plazan afari merienda egingo dute. Irakasleek esan bezala «bakoitzak berea eraman beharko du». Ja-

EGITARAU ▶

- 16:00.** Pilotalekuan, ikasleen antzerkia, dantza eta abestiak.
- 18:00.** Merienda guztientzat.
- 19:00.** Eskolako jolastokian joko malabareen tailerra.
- 21:00.** Afari merienda izango da plazan: bakoitzak berea eraman beharko du.
- Ondoren.** Filma ikusteko aukera.

rraian izango den filmak eman-gio dio bukaera aurtengo ikasturteari.

Altzora eta Ikaztegieta

Ikasleen emanaldia entsegu asko egin ondoren prestatutakoa da. Honi probetxua ateranahian, gaur egingo duten emanaldia Altzoko eskolan eta Ikaztegieta eskolan errepikatuko dituzte, bertaratzen direnen gozamenerako. Altzon asteartean izango dira, 10:30ean, eta Ikaztegieta ostegunean, ordu berean.

Jaialdi hauek irekiak dira, noski, hiru herritan. Ikasleek ilusio handiz prestatutako ekitaldiak herritarrei erakusteko irrikitan daude.

ALEGIA ▶ MUSIKA

# Txintxarriekin batera Alaia koroa izango da

Gaur elizan kontzertua eskainiko dute

ERREDAKZIOA

Alegiko Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak gonbidatuta, kontzertu bat eskainiko du Donostiako Alaia abesbatzak gaur. 19:45etik aurrera, Joan Bataiatzailea Deunaren elizan kantuan arituko dira donostiarrak Alegiko Txintxarri abesbatza ere lagun dutela.

Bi abesbatzen arteko truke baten ondorioz dator Alaia

abesbatza Alegiara. Izan ere, maiatzean alegiarrek Donostian kantatu zuten.

Donostiako Alaia abesbatza ONCE erakundearen koroa da; kantu elizkoiak nahiz folklorikoak lantzen dituzte eta hori entzuan ahal izango da gaur Alegian. Bi abesbatzek batera abestuko dutena Lesbordesen *Kantuz* abestia izango da, kontzertuan azkena, hain zuzen.

PILOTA ▶

# Gaur seniorren finalerdi bat izango da Tolosan


Ikaztegieta benjaminak ariko dira jokoan

N. URBIZU

HITZA Pilota Txapelketan murgilduta, dagoeneko hasi dira finalerdiak jokatzeko hainbat mailatan. Gaur, adibidez, 11:00etatik aurrera Tolosako Beotibar pilotalekuan lehen 22 urte azpiko finalerdi bat jokatu dute. Hau, Atxotegi-Galarragak eta Muguruza-Mitxelena jokatu dute.

Baina, lehen partidaren Renobales-Bengoetxea eta Albizuri-Elizalde ariko dira, maila berean.

Ikaztegieta txapelketako txikiak ariko dira bi finalerdi ere jokatzeko, 18:00etatik aurrera. Bidanien asteartean kadeteen finalerdiak izango dira 19:00etatik aurrera, baina aurretik alebiren finalerdi bat izango da, 18:30ean.



TOLOSA ▶ POLITIKA

# EAEk eskerrak eman dizkie «gure aldeko aukera egin dutenei»

Zinegotzi karguak «herri borondateaz lortu ez dituzten» lau pertsoneri, giza eskubiderik ez urratzeko eskatu diete



Silvana Ostiza, Antton Izagirre, Eider Elduaen eta Hektor Espin, Tolosako EAE-ANVko kideak. ASIER IMAZ

## ASIER IMAZ

Tolosako EAE-ANV, bi helbururekin prentsaurrekoa eman zuten herenegun udal aretoan. Bertara Antton Izagirre, Eider Elduaen, Hektor Espin eta Silvana Ostiza agertu ziren hauteskudeen inguruan hitz egiteko.

Lehenik eskerrak eman zizkien EAE-ANVren zerrendengan konfindantza jarri zuten herritarrei. «Gure aldeko konfindantza jarri zuten 2.000 herritar ingururi esker ona helerazi nahi diegu. Poztasuna aditzera eman nahi dugu eta hain baldintza ez bezalako baldintzetan lehiatu arren, hauteskunde kanpainan defendatu genituen ideia eta asmo guztien gaineko gure konpromisoa berri nahi

dugu, hitzez-hitz orduan agindutakoa fideltasunez beteko dugula ziurtatuz». Horrekin batera, hauteskudeen «izaera ez demokratikoa» salatu zuten, baita komunikabide batzuren jokaera, «hitza galerazi eta boto eskubide ukatzeagatik. Hala eta guztiz ere, ez dugu dagokiguna besterik eskatuko, ez gutxiago eta ezta gehiago ere. Herritarren borondatea errespetatzeko eta errespetatuazteko borondate irmoagoa dugu egunetik egunera».

Bigarren puntuan, herritarren hitza errespetatua izan zedin eskatu zuten. Horretarako beste alderdiei deialdi zuzena egin zien eta batez ere «EAE-ren lau zinegotziren lekua hartuko duten, Joxe Agustin Arrieta (EAJ), Josemi Gomez Elozegi (EA), Jose Luis Villanova (PSE-

EE) eta Inaki Irazabalbeitiari (EB-Aralar).

Haueti, «arduraz eta zentzu demokratikoz jokatzeko eta 2.000 lagun borondatea errespetatzeko» eskatu zieten. «Elkarbizitza eta errespetuaren aldeko deia da hau, eginiko injustizia gainditzeko zinegotzi kargu horiek ez ditzaten har eta espreski errefuxa ditzaten eskatzen diegu, bide bakarra delako legitimoki hautatuak izan direnei bere eskubideak igorri eta hautatuak izan direnak eskubide guztien jabe, onartuak izan daitezten».

Horretarako, idatziz euren postuei uko egitea eskatu zuten Antton Izagirre, hau da, «pribatuaitortu zaiguna publikoan bete dezatela eskatzen diegu».

## iragarki laburrak ▶

**ALOKAIRUA**  
Karabana. Errioxako kanpin batean karabana bat alokatzen da, guztiz erosoa. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 669 70 68 70.

**LANA**  
Zaintzailea. Emakumea behar da ebeko lanak eta ume bat zaintzeko. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 943 69 64 93.

IBARRA ▶

## Bihar mendi irteera eta zikiro jatea Berastegin

Bosgarren urtez jarraian, Haitzetan Raju mendi taldeak Ibarra ingurutik eginiko mendi irteera eta zikiro jatea antolatu du biharko. Irteera 09:00etan izango da plazan, eta 3 ordu ondoren Berastegin Urto parkera iritsiko dira. Bertan zikiroa jango dute eta 18:00etan autoz edo autobusez itzuliko dira. Izena emateko lekuak Zubiaurre eta Atari taberna izango dira, egunean bertan izena eman daitekeen arren. 652 715800 zenbakia ere jarri dute.

## Hilaren 15ean IKERen urteroko Batzar Orokorra

Ibarrako kirol elkarteak (IKE) urteko Batzar Orokorra ospatuko du datorren ostiralean, hilaren 15ean, gaueko 21:00etan. Deialdia egiten zaie bertako bazkide guztiei, bertara azal daitezela eskatuaz. Aldi berean, elkartearen urteroko festan egingo den bazkarirako zerrenda irekiko dute egun horretan. Festa uztailearen 7an, larunbatean izango da. Ahalik eta bazkide gehienaren parte-hartzea eskatu nahi izan du zuzendaritzak.

LIZARTZA ▶

## Bihar Igarolan 'Naparraren' omenaldia

Bihar urtero bezala, Joxe Miguel Etxeberria Alvarez, *Naparra* omenaduko dute familiaren Lizartzako Igarola baserrian. 12:00etan, 1980ko ekainaren 11n, *Naparra* euskal errefuxiatu politikoaren bahiketa eta desagertaraztea gogoratuko dira. Ekintza hau Batallon Vasco Espaiñolek bere gain hartu zuen. Aurten go omenaldia, bereziagoa izango dela jakinarazi dute antolatzaileek, izan ere, joan den irailean hil zen *Naparraren* aita.



Joxe Miguel Etxeberria. HITZA

UDALEKUAK ▶

## Lan eskaintzak Leaburu-Txarama eta Gaztelun

Gaztelu eta Leaburu-Txaramako Udalek, udaleku irekietan lan egiteko begiraleak kontratatuko dituztela jakinarazi dute. Eskatzen diren baldintzen artean, 18 urte beteak izatea eta euskara menperatzea aurkitzen dira. Udaleku ireki hauetan ordutegia 10:00etatik 13:00etara da eta begiraleak udalekuekin izango du kontratua uztaile osoan. Lan egiteko interesa dutenek udalekuek jo beharko dute instantzia eskaerak betetzera.

IBARRA ▶

## Bidaian inguruko astea, Kultur Etxean

Ibarrako Kultura eta Gazteria Sailak *Munduan zehar bidaia*tz lemapean bidaian inguruko jardunaldiak antolatu ditu. Etzi *Mekong ibaia, bizitza tsunamiaren ondoren* ikus-entzunezko dokumentala eskainiko du Angel Cuerdok 20:00etan Kultur Etxean. Hilaren 12an berriz, *New York airetik* dokumentala eskainiko dute ordu eta leku berean, eta hurrengo egunean berriz, hilaren 13an, *Euskal Herria bizikletaz: nire lehen bidaia*.

BELAUNTZA ▶

## Hilaren 14an oroimen galera mintzagai

Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutxako ikasgelak sustatuta, osasunari buruzko jardunaldietako hurrengo saioa hilaren 14an izango da Belauntzako Kultur Etxean, arratsaldeko 17:30ean. Kasu honetan landuko den gaia: *Oroimen galera. Nola gutxitu edo arindu gaitz hau?* izango da. Gaurkotasunezko hainbat gai jorratzea eta egunero bizimodurako ohitura eta praktika osasungarriak lantzea da jardunaldi hauen helburu nagusia.

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserría - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**ARAMBURU**

**Alokatzeko (Tolosa).**  
Pisua San Frantzisko kalean.

**Alokatzeko (Tolosa).**  
Garajeak. Araba etorbidean irekia eta San Frantziskon ixia.

**Alokatzeko.** Pabilioi industrialak, Leaburu bidean.

**Salgai (Tolosa).**  
Pisua "La Estrella" eraikinean.

**Salgai (Tolosa).** Pisua Bizkaia kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean).

**Salgai.** Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarra.

**Salgai (Tolosa).**  
Garajeak Leidor azpian.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

LEITZA ▶ PILOTA

# Burlataren aurka jokatu- duten lehia «gogorra» izanen dela diote Aurrerakoek

Aurreko asteburuan Aurrerakoek lortutako emaitzak eta gero, leitzarrek eta burlatarrak lehenengo doaz sailkapenean, irurtzundarrak atzetik dituztela

NAIARA GARZIA

Herri Arteko Txapelketak aurrera jarraitzen du eta gaur bertan Aurrerako pilotariak Burlatan aritzekoak dira.

Aurrera Pilota Eskolako arduradunek azaldu dutenez, «Burlata eta Leitzarren arteko lehia gogorra izanen da. Momentuz bi taldeak sailkatuta gaude hurrengo faserako, baina Irurtzungo taldeak oso puntu gutxiko aldea dauka eta tanto guztiak garrantzi handikoak dira».

Arratsaldeko 18:30ean hasiko dira gaur norgehiagokak. Lehenengoak Mikel Sagastibeltza Lasarte eta Anartz Olanoren dira, bigarrenak Joxerra Aldaregiak eta Jon Jaunarena, hirugarrenak Aritz Sagastibeltza eta Aitor Goikoetxea eta azkenekoak, Mikel Iriarte eta Aimar Lansalot.

Bihar, aldiz, Urretxun eta Li-



Leitzako pilotariak Amazabal pilotalekuan N. GARZIA

zarran ariko dira Aurrerako pilotariak. Urretxun bi pilotarik jokatu dute, banaka, 17:30etik aurrera: Jon Jaunarena eta Aritz Sagastibeltzak. Mikel Sagastibeltza eta Anartz

Olanok, berriz, elkarrekin jokatu dute Lizarran. Azken hauek ere 17:30ean jokatu dute.

Igandean, Oinatz Mariezkurrena eta Laritz Galartzak Liza-

rran jokatu dute, goizean eta Aimar Lansalotek eta Mikel Iriartek Etxaurin, arratsaldean. Azken hauek finalurrekoa jokatu dute, nagusien mailan.

Joan den asteburuan Herri Arteko Txapelketan Uharteko Arakilen aurka partida guztiak irabazi zituzten alde handiarekin. Honela, Mikel Sagastibeltza Lasarte eta Anartz Olanoren aurkariek ez zuten tantorik lortu, eta markagailua 0-18 gelditu zen, Aurrerakoek alde. Joxerra Aldaregiak eta Jon Jaunarena ere 14 tanto atera zizkieten aurkariei (4-18), eta Mikel Iriartek eta Aimar Lansalotek, 11 (11-22 amaitu zuten). Etxaurin, aldiz, Jon Iparragirre eta Ibai Gilek galdu egin zuten, eta Lizarrako norgehiagokei dago kienez, Xabier Jaunarenak eta Andoni Arozenak galdu egin zuten eta Oinatz Mariezkurrena eta Ibai Gilen partida, berriz, atzeratu egin dute. Emaitza

PLAZAN ▶

PILOTARIAK

1. Aizagirre eta Andueza Vs. Arangoa eta Abruza.
2. Tellebea eta Zabaleta Vs. Zubitur eta Goikoetxea.
3. I. Zubillaga eta J.J. Zubillaga Vs. Barandiaran eta Riaño.
4. Etxeberria eta Zestau Vs. Galartza eta Lizartza.
5. Zabaleta eta Bengoetxea Vs. Lazkano eta Alduntzin.
6. Tolano eta Loiarde Vs. Altuna eta Gorostegi.
7. Aldaia eta Bengoetxea Vs. I. Makazaga eta A. Makazaga.
8. Larraia eta Gartzia Vs. Zeballos eta Iriarte.
9. Alduntzin eta Sagastibeltza Vs. Mariñelarena eta Olanoren.

hauekin leitzarrek, burlatarrek batera, lehenengo doaz Herri Arteko Txapelketan.

Plazako Txapelketa

Plazako XV. Txapelketari dago kienez, bi jardunaldi besterik ez dira gelditzen aurtengo txapelketa amaitzeko: gaurkoa eta hurrengo larunbatekoa. Txapelketa abian jarri zenetik 3 asteburu igaro dira eta gaur ere, orain arte bezala, arratsaldeko 15:00etan hasiko dira 9 norgehiagokak. Talde bakoitzeko lehenengo eta bigarrena eta bi taldeetako hirugarren hoberenak sailkatuko dira.

LEITZA ▶ HERRI KIROLAK

## Gaur Iruñean hasiko den Iparraldeko Joko Torneoan Lazaro Bujan eta Josetxo Urrutiak parte hartuko dute

N. GARZIA

Gaur, arratsaldeko 20:00etan Errotxapeko (Iruñea) Margarita plazan VII. Iparraldeko Joko Torneoari hasiera emanen zaio, eta bertan bi leitzarrek parte hartuko dute: Laza-

ro Bujanek eta Josetxo Urrutiak. Lehenengo ingude altxatze modalitatean ariko da, eta bigarrenak bi modalitateetan parte hartuko du: harri-jasotzen eta txingekin.

Iparraldeko Jokoen barruan 7 modalitate desberdin sar-

tzen dira: Kokxor biltzea, ingude altxatzea, txingak, harri-jasotzea, lasto altxatzea, orga joko eta zaku lasterketa. Torneo honetan orga modalitatea izan ezik gainontzeko denak sartuko dira.

Probak banakakoak izanen

dira eta guztira 3 jardunaldi jokatu dituzte liga sistema erabiliz. Lehenengo jardunaldia gaurkoa izanen da, bigarrena ekainaren 24ean izanen da, 19:00etan, frontoian eta 3.a. uztaillaren 1ean, Orbaizetan, 12:30ean, frontoian.

Oсотara 20 izanen dira txapelketa honetan parte hartuko duten nafarrak, eta zenbaitek, Josetxo Urrutiak leitzarrek bezala, modalitate batetan baino gehiagotan parte hartuko dute.

Nafarroako hainbat herritako parte-hartzaileak izanen dira gaur Errotxapean eginen den jardunaldian: Leitzakoak, Berriozarkoak, Etxalarakoak, Igantzikoak, Berakoak, Iruñekoak, Aldatzakoak eta Sunbilla-koak, hain zuzen ere.

hilberria ▶



Jose Mari Arozena Martin

Atzo hil zen, 55 urte zituela.

Bere emaztea: Mari Carmen Velez; seme-alabak: Ion eta Maitte; senideak: Juan Ignacio eta Isabel Barquilla; senide politikoak: Juli eta Jose Luis Fadrique; osaba-izebak: Tere eta Miguel Carro; ilobak: Enrique, Belen eta Maria Victoria.

GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN MARTIN DE TOURS parroki elizan izango den hiletara etor zaitezela eskertzen dizuet. Guztiei mila esker alde zuretik.

URRETUXU, 2007ko ekainaren 9a

hilberria ▶



Aitor Gaztelumendi Lekuona

'Aitor Txiki'

Gure batzordekide eta laguna.  
Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Ergoingo Jai Batzordea eta Auzokalte Elkarteak.  
Ergoien auzoa. Oartzun

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAN jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95



AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Alegia.** Dantza eta antzerkia izango da. 18:00etan merienda. 19:00etan joko malabareen tailerra eskolako jolastokian. 21:00etan afari merienda plazan, eta ondoren pelikula izango da. Tartean bertso paper lehiaketako sariak banatuko dituzte. **Ikaztegieta.** HITZA Pilota Txapelketako finalurrekoak izango dira Ikaztegieta larunbatean. Bertan bi partida izango dira. **Tolosa.** Izaera eta Vision Tunel (Zaragoza) musika taldeen kontzertua 22:30ean Bonberenean. **Tolosa.** Eskolarteko I. Batel Topaketa egingo da eguerdian Zerkausiarren parean. Tolosako ikastetxeekin batera, Euskal Herri osoko DBH eta Batxilergoko 10 eskolak hartuko dute parte. **Tolosa.** Fleming eskolaren eguna. Ekitaldiak 11:00etatik aurrera Arratzainen: argazki eta eskulan erakusketa, bertso emanaldia, ekintzak, tailerrak... **Tolosa.** Udaberriren 50. urteurreneko ekitaldietan, hilaren 16an, Udaberriko belaunaldien kalejira eta bazkaria izango da. Bazkarirako sarrerak salgai daude 5 eurotan Garikano zapata dendan, Kimetzen eta Zumbeltz musika dendan. **Villabona.** Bertso-afaria antolatu du Eragin-ek Zentroan ekainaren 9an 20:30ean Amets Arzallus eta Andoni Egañarekin. Gai jarzaille: Amaia Agirre. Sarrerak salgai Erreka, Irtzar eta Xikerren.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
 Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

IRRATIA

**Txolarre irrati**  
 (107.5, 101.2 FM)  
 11:00-14:00. *Hitzak hegana.*

**Goiko irrati**  
 (107.0 FM)  
 12:00. *komerra.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Gurpilik azkarrenak

**TOLOSA** ▶ Euskal Bizikletaren lehen jardunaldia Tolosan amaitu zen atzo eta Saunier Duval taldeko Alberto Fernandez izan zen garailea

ERREDAKZIOA

**E**ibar izan zuten abiapuntu atzo Euskal Bizikletan parte hartzen ari diren 17 taldetako txirindulariak. Helmuga, berriz, gurean izan zuten eta Saunier Duval taldeko Alberto Fernandez izan zen heltzen lehena. Bigarren, Jose Angel Gomez Marchante, hirugarren, Oscar Sevilla eta laugarren Eladio Jimenez izan ziren. 172,2 kilometroko ibilbidea egin zuten kirolariek. Gaur ere Tolosatik abiatuko dira biga-




Alberto Fernandez, helmugaratzen. I. TERRADILLOS

rren jardunaldian Abadiñora arte; amaiera, berriz, etzi izango da Arraten 152,2 kilometroko jardunaldian. Areitio, Merelludi, Itziar eta Meaga igo zituzten, hirugarren mailakoak. Azken mendeatea, aldiz, lehen mailakoa izan zen, Santa Ageda, alegia. Euskal Herriko gogorrenetakoa.

Goizetik igerrri zen herrian lasterketaren presentzia: langileak, trafiko mozketak,.... Jendea ere hurbildu zen txirindularien helmugaratzea zuzenean ikustera, beroa lagun.



Tropela 39 segundora helmugaratu zen. I. T.



Jende ugari bildu zen helmugaren inguruan, baita gazteak ere. I. T.

AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
 Gaizka Mujika (Abaltzisketa). Bihar 7 urte. Ondo pasa gaur eta bihar. Muxu pila bat.



**URTE ASKOAN**  
 Nerea Orametxea Eснаola (Alegia). Gaur 5 urte. Muxu handi bat etbekoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Irene (Ibarra). Gaur 10 urte. Muxuak gurasoen eta Amaiaeren partetik.

**OINKARI**  
 dantza taldeak  
*aurkezten du:*

“aspaldikotik”

Dantzariak: OINKARI dantza taldea  
 Dantza zuzendaria: Edu Murumendiaraz  
 Musika zuzendaria: Xanet Arozena  
 Soinuteknikaia: Unai Moraza  
 Argien diseinua: Carlos Solano  
 Argi teknikaia: Iker Ugaldel  
 Testuaren egilea: Juan Kruz Igerabide  
 Nartzioak: Iñaki Bereaite

Ekainak 16 larunbata, gaueko 22:30tan  
 Billabonako Olaederra kiroldegian  
 Sarrera 5 €

OHARRA: Sarrerak salgai Billabonako Olaederra kiroldegian ondoko egunetan:  
 Ekainak 11, 12, 13, 14 eta 15 (11:00-13:00 eta 17:00-20:00)  
 Ekainak 16 (11:00etatik aurrera egun guztian)

www.oinkari.net  
 99 posta kutxatila, 20150 Billabona (Euskal Herria)

hitza